

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Dulantziko Solandia kaleko 8. zenbakian (975 lurzatia, 1 poligonoa, 1 eraikina) dagoen eraikinaren berehalako aurriaren espedientea Marcelino López de Aberásturi Vicuña jaunaren oinordekoei jakinarazteko zedula

Berehalako aurriaren espedientea Marcelino López de Aberásturi Vicuña jaunaren oinordekoei jakinaraztea.

Jakinarazpen zedula

Dulantziko Udala berehalako aurriaren espedientea izapidetzen ari da, eta ez dakienez non dauden de Marcelino López de Aberásturi Vicuña jaunaren oinordekoak, ebazpen hori jakinarazte aldera, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, administrazio egintzen jakinarazpenari buruz xedatutakoa betetzeko eta aipatutako ondorioetarako, espedienteari buruzko ebazpena jasotzen da hitzez hitz:

“Eraikin honen berehalako aurria ofizioz deklaratzeko prozedura hasi da:

Katastro erreferentzia: 975 lurzatia, 1 poligonoa, 1 eraikina

Kokapena: Dulantziko Solandia kaleko 8 zenbakia

Erabilera: bizitegitarako

Txosten teknikoak aztertu ondoren, eta ekainaren 23ko 2187/1978 Dekretuak onetsitako Hirigintzako Diziplinaren Araubideko 26.3 artikulua araberan,

Ebazten dut

Lehenengoa. Adieraztea lehen aipatutako eraikina berehalako aurri egoeran dagoela, honako arrazoi hauengatik: estalkia kolapsatu delako (egurrezko habeak eta gapirioak apurtu eta eraikinaren barrualdera erori dira).

Bigarrena. Berehala ezartzea jarraian azaltzen diren behin-behineko eta kautelazko ezohiko neurriak, ondasun publikoei eta pertsoneri kalterik ez eragiteko:

- Lurzatia hesitu.
- Energia elektrikoaren eta uraren hornidura eten, halakorik balego.
- Lurzatitik hurbil dagoen farola kendu.
- Teilak kendu, eta aldamenean dagoen lurzatian pilatu.

Hirugarrena. Ebazpen hau jakinaraztea interesdunei eta eraginpeko eskubideen gainerako titularrei.”

Marcelino López de Aberásturi Vicuña jaunaren oinordekoei jakinarazpena egiteko xedez, ebazpena ALHAOn argitaratuko da, eta jakinarazten zaie ebazpen horrek dagozkion ondorioak izango dituela ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dulantzi, 2020ko ekainaren 4a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA